

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	UR-INGURUNE NATURALETAN ISTRIPUA IZAN DUTENAK ATERATZEA ETA LEKUALDATZEA	Iraupena	90
		Baldintzatua	
Kodea	UF1500		
Lanbide-arloa	Kirol-jarduera fisikoak		
Lanbide-eremua	Prebentzioa eta sendatzea		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ur-ingurune naturaletako sorospena	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Ur-ingurune naturaletan istripua izan dutenak erreskatatzea	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Ur-ingurune naturaletan istripua izan dutenak erreskatatzean igeri egiteko teknikak eta kondizio fisikoak	Iraupena	30

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator LB2, LB3, LB4 eta LB5 lanbide-burutzapenekin.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Ur-ingurune naturaletan gerta litezkeen larrialdi-egoerak ebaluatzea, eta erreskaterako prozedurak ezartzea.

EI1.1 Ur-ingurune naturaletako arrisku-faktoreak zehaztea, eta gerta litezkeen ur-istripuekin erlazionatzea.

EI1.2 Ur-ingurune naturaletako istripuen zeinuak eta seinaleak deskribatzea.

EI1.3 Ingurune naturalean istripua izan dutenen jarrerak identifikatzea, jarrera erlaxatuetatik izu-egoeretaraino, eta haien ondorioak eta erreskaterako prozeduraren egokitzapena azaltzea.

A2: Urertzetik erreskatatzeko teknikak segurtasunez eta eraginkortasunez zehaztea, eta ingurune-kondizioetara, istripuetara, biktimaren egoerara eta eskuragarri dauden giza baliabide eta baliabide materialetara egokitzea.

EI2.1 Erreskatatzeko eta/edo uretara sartzeko tokia baldintzatzen duten ur-ingurune naturaletako arrisku-faktoreak eta -mailak deskribatzea.

EI2.2 Ur-ingurune naturaleko tokirik egokienean segurtasun-lerroak jartzea.

EI2.3 Erreskateko materiala (segurtasun-poltsa edo -soka) eraginkortasunez eta zehaztasunez botatzea kordean dagoen eta uretan arazoak dituen biktima baten itxura egiten ari den pertsona bati, eta harengana hurbiltzea, urertzera segurtasunez joanez, eta soka biltzea.

A3: Edozein erreskate-ontzitatik —hala nola arraunekin ibiltzeko ontziak, ontzi motordunak eta uretako motorrak— erreskatatzeko teknikak segurtasunez eta eraginkortasunez zehaztea, eta ingurune-kondizioetara, istripuetara, biktimaren egoerara eta giza baliabide eta baliabide materialetara egokitzea.

EI3.1 Soroslea ontzira eta uretako motorrera igotzeko eta handik jaisteko maniobrak segurtasunez eta eraginkortasunez egitea ur-ingurune naturalean erreskateak egitean.

EI3.2 Sorosleak zaintza eta erreskatea egiten duenean ontzian eta uretako motorrean zer kokaleku izan behar duen azaltzea eta gauzatzea.

EI3.3 Uretako soroslearen ekintzak eraginkortasunez eta segurtasunez egitea, patroia edo beste tripulatzaile batzuk erreskaterako ontzitik edo uretako motorretik erortzean.

A4: Istripua izan duenarekin eta/edo haren laguntzaileekin harremana izatean larrialdi-egoeraren arabera erabili beharreko komunikazio-teknikak deskribatzea.

EI4.1 Istripua izan ondoren kordean dagoen biktima batekin harremanetan jartzea, jarrera seguru, lasaigarri eta atsegina batean, eta harreman hori deskribatzea.

EI4.2 Istripua izan den tokitik hurbil dauden erabiltzaileekin harremanetan jartzea, jarraitu beharreko jarrerak segurtasunez eta argi azaltzea haiei, haien laguntza lor dadin eta egoera zaildu edo okertu ez dezaten, eta harreman hori deskribatzea.

EI4.3 Biktimaren senitartekoekin harremanetan jartzea, jarrera lasaigarri eta atsegina bat erabiliz, eta gaizki interpreta daitekeen edo eragin negatiboa izan dezakeen informazio eman gabe, eta harreman hori deskribatzea.

EI4.4 Alerta kolektiboko egoera simulatu batean, komunikazioa ezartzea eta hura deskribatzea.

A5: Larrialdi-egoerarako autokontrol-teknikak definitzea.

EI5.1 Larrialdi-egoeretan eraginkortasunez esku hartzeko autokontrol-teknikak deskribatzea.

EI5.2 Erreskate batean esku hartzeko aktibazioaren kontrol-teknikak (arnasketa eta erlaxazioa) deskribatzea.

EI5.3 Uretako soroslearen autokonfiantza hobetzeko estrategiak azaltzea.

EI5.4 Larrialdi-egoeretan autokontrollean eragiteari lotutako asmatutako praktika bat programatzea eta deskribatzea.

## Edukiak

### 1. Uretako sorospeneko esku-hartzea.

- Uraren ezaugarriak eta arropa eta oinetakoei buruzko oharrak.
- Salbamendua eta sorospena antolatzea.
- Arazoa ulertzeko modua: oinarritzko elementuak.
- Egoera aztertzea.
- Erabakiak hartzea.
- Erreskate-ekintzak gauzatzea.

### 2. Ur-ingurune naturaletan erreskatatzeko teknikak.

- Kokapenekoak, erreferentzia-puntuetakoak eta leku-antolaketakoak.
- Materiala uretako erreskateko baliabide osagarri gisa erabiltzea.
  - Salbamendu-uztaia.
  - Erreskate-hodia.
  - Torpedo-buia.
  - Salbamendu-ohola.
  - Uretako motorra.
  - Ontzi motorduna.
- Erreskate-txirrika.
- Istripua izan duenarengana hurbiltzeko teknikak.
- Salbamendu-materialarekin gerturatzeko teknikak.
- Harremanetan jartzeko, kontrolatzeko eta biktima baloratzeko teknikak.
  - Kordean.
  - Konortetik gabe.
  - Askatzea.
- Istripua izan dutenak lekuz aldatzeko teknikak.
  - Materialik gabe.
  - Materialarekin.
- Istripua izan duena uretatik ateratzeko teknikak.
  - Materialik gabe.
  - Materialarekin.
- Muineko lesioa edo politraumatismoa duen norbait.
  - Uretara sartzea, hurbiltzea, kontrolatzea, immobilizatzea, lekualdatzea eta ateratzea.
- Istripua izan duena ebakutzea.
  - Beste baliabide batzuekin koordinatzea.
- Uretan erreanimatzeko teknikak.

### 3. Ur-ingurune naturaletako maniobra, zeregin eta teknika espezifikoak.

- Uretako sorosleak erreskaterako ur-ontzietatik esku hartzea.
  - Uretara sartzeko, muineko lesioa eta politraumatismoak dituzten biktimgana hurbiltzeko eta haiek kontrolatu, immobilizatu, atera eta lekualdatzeko teknikak.
- Segurtasun-lerroak, balizajeak eremuak mugarritzea.
- Beste baliabide batzuekin koordinatzea.

### 4. Portaera-estrategiak, erreskateko fase kritikoko alderdi psikologikoak.

- Ustez itotzen ari den pertsonaren portaera.
- Soroslearen jarrerak eta erantzuna.
- Egoera kontrolatzea.
- Antsietatea kontrolatzeko teknikak soroslearentzat:
  - Maila kognitiboan.
  - Maila fisiologikoan.
  - Jokabidezko mailan.

### 5. Istripua izan dutenak erreskatatzeko eta larrialdietako egoerei aplikatutako komunikazioa.

- Hitzeko eta hitzik gabeko komunikazio-teknikak.
  - Istripua izan duenarekin.
  - Laguntzaileekin (ustekabekoak edo ez).
  - Gainerako erabiltzaileekin/publikoarekin.
- Trebetasun sozialak.

- Erreskateko gatazka-egoeretako komunikazioa eta gatazka-konponketa.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF1499 Ur-ingurune naturaletan istripua izan dutenak erreskatatzean igeri egiteko teknikak eta kondizio fisikoa

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ur-ingurune naturaletako sorospena.